# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LAN, OSASUNKETA ETA GIZARTESEGURANTZARAKO ETA INDUSTRIA ETA MERKATARITZARAKO SAILAK

197

Abenduaren 17ko 389/1985 DEKRETOA, Euskal Herriko Elkarte Autonomoaren ekintza-eremuak deklaratuz eta erabilgarri den organizatze-eskema erabakiz.

Lurraldearteko Ekintzetarako Neurriak araupetzen dituen Ekainaren 11ko 154/85 Dekretoak, Elkarte Autonomoan ahaleginak geografikoki biltzeko teknikan oinarritutako ekonomia-ekintza bizteko politika bat erabiliko duten oinarri eta mekanismoak finkatzen ditu, politika hori Europako Elkartean eta bere Estatuetan dagoenaren antzekoa dela eta alorka eta/edo orokorki burutzen diren beste ekintzekin bateragarria eta azken batean, Euskal Sektore Publikoaren neurri lagungarrien multzoaren eginkortasunaren, garapenerako bertako ahalmen egoki bat agertzen duten ekintza-eremuetan, hobekuntzarako.

Izan ere, azken hiru urte hauetan, Euskadin, ekonomiazko birrantolaketa globala biztu eta sustatzea helburutzat duen programa sail bat garatu da, bereziki industriarena eta programa horiek funtzio ezberdin batzuren inguruan egituratu daitezke (Inbertsioa, Berrikuntza, Hezkuntza, Lana, e.a.) eta horiek, funtsean, Europako beste herriak garatu eta jardunean jarri dituzten ereduei jarraituz eratu dira.

Laguntzarako programa horiek, hainbat erakundek egin eta ordainduak eta gaur arte Lurralde Historikoan (Foru-Diputazioak) eta Elkarte osoan (Eusko Jaurlaritza) oinarrituz aplikatuak, gaurregun bertan konplexutasun nabarmena duen sail bat osatzen dute eta laister programa berrien eta erakunde publiko eta pribatuen eraginez konplexutasun hori areagotu daitekeelarik. Joera horrek, Europan orokorra dena, koordinaketa egoki batetara eta informaketarako eta sustaketarako politika eraginkor batetara behartzen du.

Hemen aurrean ohartematen zenez, Ekintza-Eremu batzuk ezarriz oinarritutako eredu berri bat definituz aurre egiten ahalegintzen den 154/85 Dekreto horren aplikapenak, Ekintza-Eremu horiek mugatzea eskatzen du lehenengoz. Horretarako, industriaren beherakada bereziki nabarmena izan duten edo izan dezaketen geografia-eremu batzuk bilatu dira; hala ere, arazoa zabalago ikusteak, lurraldea antolatzeko erizpideak sartzen dituela eta egon dagoen azpiegitura kontutan hartuko duena, erizpide horietan oinarrituz beste eremuak ere sartzea eskatzen du.

Ekintza Eremu bakoitzaren gaitasuna indartu ahal izateko ezinbesteko puntua den modeloaren antolaketari dagozkionetan, horren oinarri izango den egiturak honako baldintza hauek bete ditzala lortzea beharrezko izango da: Programen eta hauek garatuko dituzten erakundeen berri ematea, hartzaileek, hauen artean beharbadako enpresariak sartu beharko liratekeela, ho-

## DEPARTAMENTOS DE TRABAJO, SANIDAD Y SEGURIDAD SOCIAL E INDUSTRIA Y COMERCIO

197

DECRETO 389/1985, de 17 de Diciembre, por el que se declaran las distintas áreas de actuación de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se determina el esquema organizativo aplicable.

El Decreto 154/85, de 11 de Junio, por el que se regulan las Medidas de Actuación Interterritorial, establece las bases y mecanismos mediante los que se aplicará en la Comunidad Autónoma del País Vasco una política de estimulación de la actividad económica basada en la técnica de concentración geográfica de esfuerzos, similar a las ya existentes en el seno de la Comunidad Europea y en sus Estados miembros, compatible con otras actuaciones de carácter sectorial y/o general, y tendente en último término a mejorar la eficacia del conjunto de medidas de apoyo por parte del Sector Público Vasco en determinadas áreas de actuación que presenten un adecuado potencial endógeno de desarrollo.

En efecto, durante los tres últimos años se ha desarrollado en Euskadi un conjunto de programas que tienen por objeto estimular y promover la reconversión económica global, y muy particularmente la industrial, que pueden estructurarse entorno a varias funciones (Inversión, Innovación, Formación, Empleo, etc.), y que se han diseñado siguiendo básicamente los modelos desarrollados y puestos en marcha por otros países europeos.

Tales programas de ayuda, ejecutados y financiados por diferentes entidades, y aplicados hasta la fecha sobre la base del Territorio Histórico (Diputaciones Forales) y de toda la Comunidad (Gobierno Vasco), componen un conjunto que presenta ya en la actualidad una complejidad considerable que podría aumentar en un futuro próximo como consecuencia de nuevos programas y entidades tanto públicas como privadas. Esta tendencia, que en general en Europa, obliga a una correcta coordinación y a una eficaz política de información y promoción.

La aplicación del mencionado Decreto 154/85, que como ya se señalaba más arriba trata de afrontar esta situación mediante la definición de un nuevo modelo basado en el establecimiento de unas Areas de Actuación, exige en primer lugar la delimitación de ellas. A tal fin se han identificado inicialmente unas zonas geográficas en las que el declive industrial ha sido o podría ser particularmente intenso; sin embargo, una consideración más amplia del problema, que englobe criterios de ordenación del territorio y tenga en cuenta la infraestructura existente, aconseja la inclusión de otras áreas en base a dichos criterios.

Por lo que se refiere al aspecto organizativo del modelo, pieza clave del mismo para dinamizar la capacidad propia de cada Area de Actuación, resulta necesario conseguir que la estructura en que se sustente el mismo cumpla las siguientes funciones fundamentales: difundir los programas y las entidades que los desarrollan, de forma que sus destinatarios, entre los

beto ezagutu ditzaten eta horiekiko aldezko jarrera izan dezaten; laguntza sistema, orohar, hobetzeko bide izan daitezkeen eragile sozialen iniziatibak jasotzea; eta, azkenik, programen aplikapenen emankortasuna gehitzea, industria berriak sor daitezenean edo lehengoak gehitzean eta lehengoei eraskinak jartzean batipat.

Horiek horrela, Ekainaren 11ko 154/85 Dekretoko Gehigarrizko Erabakietatik hirugarreneko 6. eta 10. atalek diotenaren arabera, Jaurlaritzako Ekonomia Batzordeak Lurraldearteko Politikarako Gestio-Komiteari egindako saloz eta Jaurtze-Kontseiluak 1985.eko Abenduaren 17an egindako batzarrean onartu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

I. EKINTZA EREMUEN MUGAKETA

*1. Atala.*– Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Lurraldearteko Ekintza-Neurriak araupetzen dituen Ekainaren 11ko 154/85 Dekretoak ezartzen dituenaren ondorioetarako, honako Ekintza Eremu hauek deklaratzen dira:

1. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

1.1. Garapen Bereziko Eremua (G.B.E.)

Honako hauek hartzen dituela:

– Gasteizko industria lurra eta, Arabako Lautada eskualdean, Alegria-Dulantzi, Asparrena, Okako Iruña eta Aguraingo udalerriak.

– Gorbearen Behealdetako eskualdean, Legutianoko udalerria.

– Arabako Bailara eskualdean, Lantaron eta Errioxa behea udalerriak.

– Arabako Kantabria eskualdean, Amurrio, Aiala eta Laudio udalerriak.

1.2. Arabako Errioxako Garapen Aldea (G.E.)

– Biasteri eta Oiongo udalerriak hartzen ditu.

2. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

2.1. Garapen Bereziko Eremua (G.B.E.)

Honako hauek hartzen dituela:

– Bidasoa Behea eskualdean, Hondarribia eta Irungo udalerriak.

– Donostialdea eskualdean, Andoain, Hernani, Lasarte, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteri, Urnieta, Usurbilgo udalerriak eta Donostiako industria lurra.

– Goierri eskualdean, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpia, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama eta Zumarragako udalerriak.

– Tolosaldea eskualdean, Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Berrobi, Ibarra, Iruerrieta, Irura, Legorreta, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalerriak.

– Deba Behea eskualdean, Deba, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Mutriku eta Soraluzeko udalerriak.

que habría que destacar a los potenciales empresarios, adquieran un mejor conocimiento de los mismos y reaccionen positivamente ante ellos; recoger de los agentes sociales aquellas iniciativas que sirvan para mejorar el sistema de ayudas en su conjunto; y, dinalmente, mejorar la efectividad en la aplicación de los programas, muy particularmente en los casos de creación o ampliación de empresas industriales y conexas.

En virtud de todo ello, de conformidad con lo dispuesto en los artículo 6 y 10 y Disposición Adicional tercera del Decreto 154/85 de 11 de Junio, a propuesta del Comité de Gestión de Política Interterritorial elevada a la Comisión Económica del Gobierno, previa aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del 17 de Diciembre de 1985.

DISPONGO:

I. DELIMITACION DE AREAS DE ACTUACION

*Artículo 1.*– A efecto de lo dispuesto en el Decreto 154/85 de 11 de Junio, por el que se regulan las Medidas de Actuación Interterritorial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se declaran las siguientes Areas de Actuación:

1. TERRITORIO HISTORICO DE ALAVA

1.1. Area de Desarrollo Especial (A.D.E.)

Que comprende:

– El suelo industrial de Vitoria-Gasteiz y los municipios de Alegría-Dulantzi, Aspárrena, Iruña ~~de~~ Oca y Salvatierra, en la comarca de la Llanada Alavesa.

– El municipio de Legutiano en la comarca de Estribaciones del Gorbea.

– Los municipios de Lantarón y Ribera Baja en la comarca de Valles Alaveses.

– Y los municipios de Amurrio, Ayala, y Llodio en la comarca Cantábrica Alavesa.

1.2. Zona de Desarrollo (Z.D.) de la Rioja Alavesa

Comprende los término municipales de Labastida y Oyón.

2. TERRITORIO HISTORICO DE GUIPUZCOA

2.1. Area de Desarrollo Especial (A.D.E.)

Que comprende:

– Los municipios de Hondarribia e irún en la comarca de Bajo Bidasoa.

– Los municipios de Andoain, Hernani, Lasarte, Lezo, Oyarzun, Pasaia, Renteria, Urnieta, Usurbil, y el suelo industrial de Donostia-San Sebastián, en la comarca de Donostialdea.

– Los municipios de Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itxasondo, Lazkao, Legazpia, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama y Zumarraga en la comarca de Goierri.

– Los municipios de Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Belaunza, Berrobi, Ibarra, Iruerrieta, Irura, Legorreta, Tolosa, Villabona, y Zizurkil, en la comarca de Tolosaldea.

– Los municipios de Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, y Placencia en la comarca del Bajo Deba.

– Urola Kostaldea eskualdean, Getari, Zarautz eta Zumaiako udalerriak.

2.2. Garapen Bereziko Aldeak (G.B.A.)

2.2.1. Deba Garaiko Garapen Bereziko Aldea

– Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñatiko udal-megarteak hartzen ditu.

2.2.2. Erdi-Urolaren Garapen Berezirako Aldea.

– Azkoitia eta Azpeitiako udal mugarteak hartzen ditu.

3. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA.

3.1. Garapen Berezirako Eremua (G.B.E.)

Honako hauek hartzen ditu:

– Abanto-Zierbana, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Larrabetzu, Leioa, Lezama, loiu, Ugao-Miraballes, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Trapaga-Trapagaran eta Zamudioko udal mugarteak eta Bilboko Eskualdean, Bilboko industri-lurra.

– Eta Orduñako udal mugartea, Arratia-Nerbioi eskualdean.

3.2. Garapen Berezirako Aldeak (G.B.A.)

3.2.1. Gernika-Bermeoko Garapen Berezirako Aldea.

– Bermeo eta Gernikako udal mugarteak hartzen ditu.

3.2.2. Durangaldeko Garapen Berezirako Aldea.

– Honako udal mugarte hauek hartzen ditu: Abadiño, Zornotza-Etxano, Bedia, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Igorre, Izurza, Lemoa, Mallabia eta Zaldibar.

3.2.3. Markina-Ondarruko Garapen Berezirako Aldea.

– Honako udal mugarte hauek hartzen ditu: Berriatua, Gizaburuaga, Markina-Xemein, Mendexa eta Ondarru.

3.2.4. Plentzia-MTungiako Garapen Berezirako Aldea.

– Honako udal mugarte hauek hartzen ditu: Berango, Mungia, Sopela eta Urduliz.

3.3. Garapenerako Aldeak (G.A.)

3.3.1. Enkarterrietako Garapenerako Aldea (G.A.)

Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes eta Zallako udal mugarteak hartzen ditu.

*2. Atala.*– Aurreko Ekintzarako Eremuen izendapenak, bost urteko balioa izango du, urtero aztertu ahal dadin kaltetan gabe, horretarako jarritako arautegiaren arauera.

II. GESTIORAKO ORGANOAK.

Lurralde Historiko bakoitzean, Batzorde Gestiogile bat sortzen da, Jaurlaritzaren hiru ordezkarik eta dagokion Foru Diputazioaren beste hiruk osaturik, Organo Kolegiatu gisan ihardungo duena, Prozedura Administratiboari buruzko Legearen arauera. Batzorde Burua, Eusko Jaurlaritzak izendatuko du eta Batzorde Buruordea, berriz, dagokion Foru Diputazioak izendatuko du.

– Y los municipios de Getaria, Zarautz y Zumaia en la comarca de Urola Costa.

2.2. Zonas de desarrollo especial (Z.D.E.)

2.2.1. Zona de desarrollo especial del alto Deba

– Comprende los términos municipales de: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza y Oñati.

2.2.2. Zona de desarrollo especial de Urola-Medio

– Comprende los términos municipales de Azkoitia y Azpeitia.

3. TERRITORIO HISTORICO DE VIZCAYA

3.1. Area de Desarrollo Especial (A.D.E.)

Que comprende:

– Los términos municipales de Abanto y Ciérvana, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Baracaldo, Basauri, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Miravalles, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zamudio, y el suelo industrial de Bilbao, en la comarca del Gran Bilbao.

– Y el término municipal de Orduña, en la comarca de Arratia-Nervión.

3.2. Zonas de Desarrollo Especial (Z.D.E.)

3.2.1. Zona de Desarrollo Especial de Bermeo-Gernika

– Comprende los términos municipales de Bermeo y Gernika-Lumo.

3.2.2. Zona de Desarrollo Especial del Duranguesado

– Comprende los términos municipales de: Abadiño, Amorebieta-Echano, Bedia, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Igorre, Izurza, Lemoa, Mallabia y Zaldibar.

3.2.3. Zona de Desarrollo Especial de Markina-Ondarroa.

– Comprende los términos municipales de: Berriatua, Guizaburuaga, Markina-Xemein, Mendexa y Ondarroa.

3.2.4. Zona de Desarrollo Especial de Plentzia-Mungia.

– Comprende los términos municipales de: Berango, Mungia, Sopelana, Urdúliz.

3.3. Zonas de Desarrollo (Z.D.)

3.3.1. Zona de Desarrollo (ZD) de las Encartaciones.

– Comprende los términos municipales de Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes y Zalla.

*Artículo 2.*– La declaración anterior de Areas de actuación tendrá validez para un período de cinco años, sin perjuicio de que pueda ser revisada anualmente conforme a la normativa establecida al respecto.

II. ORGANOS DE GESTION

*Artículo 3.*– En cada uno de los Territorios Históricos se crea una Comisión Gestora, integrada por tres representantes del Gobierno Vasco y otros tres de la Diputación Foral correspondiente, que actuará como Organo colegiado coforme a la Ley de Procedimiento Administrativo. El Presidente será nombrado por el Gobierno Vasco, mientras que el Viceconsejero lo será por la Diputación Foral correspondiente.

*4. Atala.*– Eusko Jaurlaritzak eta dagozkien Kondaira-Lurraldeen Foru-Diputazioek hartu beharreko ekonomia-ekintza bultzatzeko neurriak elkarkidetu eta suztatzeari dagozkienetan, goreneko erabakitzezko ihardutze-sailak diren Eraentza-Batzorde bakoitzaren egitekoak honako hauek izango dira:

1.– Elkarkidetze-alorrean:

a) Eusko Jaurlaritzak, Foru-Diputazioek eta bai horien menpe egon edo partaidetza duteneko ezein erakundek ere hartu beharreko ekonomia-ekintza suztatzeko neurriak erabiltzeko modua zaintzea.

Horretarako, Eraentza-Batzordeek, Eusko Jaurlaritzari eta dagokien Kondaira-Lurraldearen Foru-Diputazioei, elkarkidetze egitekoa betetzeko beharrezko jotako edozein argipide eskatu ahal izango diete.

Eraentza-Batzordeek, beren ihardunean honako hauek ere izango dituzte egiteko: aldian-aldian edo beharrezko izan daitezenetan, Eusko Jaurlaritzari eta dagokion Kondaira-Lurraldeari erizpen-txosten bat emango diete, bertan bidezko jotako ekinbideari jarraitzeko aholkuak emanez.

b) Kondaira-Lurraldean indarrean dauden laguntzarako neurriak erabiltzeko elkarkidetze eta eginkortasun haundiago bat lortzeko bideratutako besteak.

2.– Suztatze-alorrean:

a) Kondaira-Lurralde bakoitzean jarri beharreko Suztatze-Idazguak eta dagozkien antolatze-egiturak zehaztea.

b) Kondaira-Lurraldean indarrean dauden ekonomia-ekintzari laguntzeko egitarauei buruzko argipideak emateko arizpideak finkatzea.

c) Suztatze-Idazguek (SI) Kondaira-Lurraldean erabili beharreko eta horretarako bertan ezarri dadin suztatze-araupidetza bat finkatzea.

*5. Atala.*– Eraentza-Batzordeek duten suztatze-ihardun egiteratzeko tresna gisako baltzuak sortaraziko dira, legez Akziokako Baltzuk (A.B.) izango direnak, eta haietan, bere garaian jar dadin neurrian, E.H.A.E.-ren Herri-Arduralaritzak eta dagokien Kondaira-Lurraldearen Foru-Diputazioek partaidetza izango dute.

Baltzuen Arduralaritza-Batzordea, Eraentza-Batzordearen kideak izango diren Eusko Jaurlaritzako hiru Ordezkarik eta dagozkien For-Diputazioen hiru ordezkarik osatuko dute.

*6. Atala.*– Aurreko atalak aipatzen dituen baltzuek, dagozkien Eraentza-Batzordeen menpe eta dagokien Kondaira-Lurraldeen eremuan honako egiteko hauek izango dituzte:

a) Kondaira-Lurraldean erabili beharreko ekonomia-ekintzari laguntzeko egitarauei buruzko argipideak zabaltzea eta horien eraentza eramatea, Eusko Jaurlaritzak, Lurraldeko Foru-Diputazioak edo/eta herri nahiz norbanako-jabetzapeko ezein erakundek jarritakoak.

b) Ekonomia-ekintza bultzatzea eta, horiek, dagozkien erakundeengana bideratzea, erabili beharreko laguntzari buruzko aholkua norbanakoen ekinbideei emanez.

*Artículo 4.*– Las funciones de cada una de las Comisiones Gestoras, como máximos órganos decisorios en lo relativo a la coordinación y promoción de las medidas de estimulación de la actividad económica por parte del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales en sus respectivos Territorios Históricos, serán las siguientes:

1.– En materia de coordinación:

a) La vigilancia en la aplicación de las medidas de estimulación de la actividad económica por parte del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales, así como de cualquier organismo dependiente de las citadas Instituciones o participado por las mismas.

A tal efecto, las Comisiones Gestoras podrán recabar del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente cualquier tipo de información que consideren necesaria par el cumplimiento de su función coordinadora.

Las Comisiones Gestoras, en el cumplimiento de sus funciones, entregarán periódicamente o cuando la ocasión lo requiera un informe al Gobierno y a la Diputación Foral correspondiente con las recomendaciones de acutación que consideren convenientes.

b) Aquellas otras conducentes a una mayor coordinación y efectividad en la aplicación de las medidas de apoyo vigentes en el Territorio Histórico.

2.– En materia de promoción:

a) La definición de las Oficinas de Promoción a establecer en cada Territorio Histórico, y la de sus respectivas estructuras organizativas.

b) La fijación de los criterios de información sobre los programas de apoyo a la actividad económica vigentes en el Territorio Histórico.

c) El establecimiento de la metodología de promoción aplicable en el Territorio Histórico por las Oficinas de Promoción (OP) que al efecto se establezcan en el mismo.

*Artículo 5.*– Para ejecutar la función de promoción de las Comisiones Gestoras, se crearán sendas sociedades de caracter instrumental, que adoptarán la forma jurídica de S.A., con participación de la Administración Pública de la C.A.P.V. y de la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente en la proporción que en su momento se establezca.

El Consejo de Administración de las sociedades estará compuesto por tres representantes del Gobierno Vasco y tres representantes de la Diputación Foral correspondiente que serán los propios miembros de la Comisión Gestora.

*Artículo 6.*– Las sociedades a que se refiere el artículo anterior desarrollarán, en dependencia de las Comisiones Gestoras correspondientes, y en el ámbito de sus respectivos Territorios Históricos, las funciones siguientes:

a) La difusión y gestión de la información sobre los programas de apoyo a la actividad económica de aplicación en el Territorio Histórico, bien sean los establecidos por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral del Territorio o por cualquier entidad pública o privada.

b) La impulsión de la actividad económica mediante el asesoramiento a las iniciativas privadas sobre los programas de apoyo a utilizar y la canalización de las mismas hacia las entidades correspondientes.

c) Ihardutze-Eremu bereziak Suztatzeko Idazguak jartzea, eta bai horien eraentza ere egitea.

d) Dagokion Eraentza-Batzordeak eta, hala badagokio, Lurraldearteko Politika-Eraentzarako Batzordeak agindu ditzaten bestelakoak, betiere, Lurraldearteko Ekintza-Neurriei buruzko 154/1985 Dekretoan jarritakoaren barruan.

III. LAGUNTZAZKO NEURRIEN ERABILPENA

*7. atala.*– Eusko Jaurlaritzaren, Foru-Diputazioen eta, hala badagokio, Erresumakoen eta Europako Elkartekoen laguntza-egitarau guztiak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko lurralde osoan orohar erabiltzearen kaltetan gabe, honako erizpide osagarri hauek kontutan izan beharko dira Ihardutze-Eremuei dagokienetan:

a) Berarizko Garapenerako Eremuak eta Berarizko Garapenerako Aldeak.

1.– Enpresak sortaraztea, enpresak eraberritzea, industriaren azpiegitura, lanbidea, heziketa eta birgaikuntza xede duten egitarauak bete-betean erabiltzea.

2.– Diruezarketa laguntzea xede duten dirubide-ituneei lehentasuna ematea.

3.– Industriako eta horri datxezkion ekintzen egitasmo berrientzat ogasun iraunkorretan egin daitezen diruezarketentzako laguntza gisa, %5eko zenbatekoraino ehuneko osagarria erabiltzea.

b) Garapenerako Aldeak

3.a) idazatian aipatzen diren antzeko egitasmoentzat ogasun iraunkorretan egin daitezen diruezarketentzako laguntza gisa, %3ko zenbatekoraino ehuneko osagarria erabiltzea.

AZKEN ERABAKIA.

Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1985.eko Abenduak 17.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan, Osasunketa eta
Gizartesegurantza-Sailburua,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

Industria eta Merkataraitza-Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

c) La implantación de las Oficinas de Promoción de las diferentes Areas de Actuación, así como la gestión de las mismas.

d) Aquéllas otras que, el marco de lo dispuesto en el Decreto 154/1985 de Medidas de Actuación Interterritorial, les sean encargadas por la Comisión Gestora correspondiente, y en su caso por el Comité de Gestión de Política Interterritorial.

III. APLICACION DE LAS MEDIDAS DE APOYO.

*Artículo 7.*– Sin perjuicio de la aplicación con carácter general de todos los programas de apoyo del Gobierno Vasco, de las Diputaciones Forales, y en su caso de los del Estado y de las Comunidades Europeas, en la totalidad del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se observarán los siguientes criterios complementarios en lo que respecta a las Areas de Actuación.

a) Areas de Desarrollo Especial y Zonas de Desarrollo especial.

1.– Aplicación intensiva de los programas de creación de empresas, innovación empresarial, infraestructura industrial, empleo, formación y reciclaje.

2.– Aplicación prioritaria de los convenios financieros de apoyo a la inversión.

3.– Aplicación de un porcentaje complementario de hasta un 5% como subvención a la inversión en activos fijos para nuevos proyectos de actividades industriales y conexas.

b) Zonas de Desarrollo.

Aplicación de un porcentaje complementario de hasta un 3% como subvención a la inversión en activos fijos para proyectos similares a los contemplados en el apartado a) 3.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de Diciembre de 1985.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo,
Sanidad y Seguridad Social,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

El Consejero de Industria y Comercio,
JOSE ARRIETA HERAS.